



MENDAROKO
UDALA

2024KO OTSAILAREN 27AN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:

Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)

Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui A. (EH BILDU)

Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)

Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)

TELEMATIKOKI PARTE HARTU DUTE:

Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)

EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:

Iñaki Arregui Uria J. (EAJ-PNV)

Nuria Guerola Horrillo A. (EAJ-PNV)

Amaia Urrea Mardaraz A. (EAJ-PNV)

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda
Anderea.

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitalaugarreneko otsailaren 27an zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

Batzarkide guztien adostasuna jasotzen du telematikoki konektatu den zinegotziak.

Eguneko gai zerrenda:

1. AURREKO SESIOAREN AKTAREN BORRADOREA ONARTZEA, HALABADA (2024.01.25)
2. 2024-2026 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.
3. %0,5EKO ORDAINSARI IGOERA OSAGARRIA, 2023.01.01ETIK AURRERAKO ONDORIOEKIN.
4. LANDA BIDE PUBLIKOEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.
5. BATZORDE INFORMATIBOEN ANTOLAKUNTZA ALDAKETARAKO PROPOSAMENA.
6. UDALBILTZAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENAK.
7. MARTXOAK 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.
8. MENDAROKO UDALAK "BERDINBIDEAN GIPIZKOA PROGRAMAN" PARTE HARTZEKO ESKAERA.
9. ALKATETZAREN EBAZPENAK.



MENDAROKO
UDALA

LEHENENGO PUNTUA. AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALABADA.- Batzar honen deialdiari 2024.01.25 datako aurreko batzarreko aktaren zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Andereei inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

2024.01.25 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

BIGARREN PUNTUA. 2024-2026 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.-

2024-2026 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN HASERAKO ONARPENA.- Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldeztu aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udalbatzari Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartzea proposatzen dio.

Ondoren, bozketa egin, eta Udalbatzak ahobatez, honako hau

e r a b a k i t z e n d u

LEHENENGOA. 2024-26 ARTEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA onartzea, espedientean jasota dagoen bezala.



MENDAROKO
UDALA

BIGARRENA. Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea.

Aldi berean, Planaren testua Udalaren web-atarian argitaratzea [helbidea: <https://www.mendaro.eus>], eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak jasotzeko.

HIRUGARRENA. Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako agiriak sinatu eta sinatzeko.

HIRUGARREN PUNTUA. %0,5EKO ORDAINSARI IGOERA OSAGARRIA, 2023.01.01 ETIK AURRERAKO ONDORIOEKIN.- Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19 Bi 2 b) artikulua honako hau xedatzen du:

"2. Halaber, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, honako igoera hauek aplikatuko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi kasuetan:
(...)

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izandako bilakaerari lotutako gehikuntza. BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaitutuko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da".

Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024/01/30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan jasotakoa bete zelarik, hau da, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza, 2023.01.1etik aurrera.

Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (BOE 2024/02/08).



MENDAROKO
UDALA

Hori guztia ikusita, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, Nerea Isasik dio EAJ langileen igoeraren alde dagoela, baina kargu publikoen bozketa ezberdindu egin beharko litzatekeela. Gauzak horrela, zinegotzi guztien adostasunarekin bi bozketa egiten dira, bata langileen ordainsarien igoerari dagokionez eta bigarrena kargu publikoen igoerari daokiona. Udal honekegokitzat jotzen du honako AKORDIOA:

Udalbatzak ahobatez

erabakitzen du

LEHENENGOA: 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea.

Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bestetik, udalbatzak EHBilduren 5 aldeko botuek eta EAJ-ren abstentzio bakararekin honakoa ere erabakitzen du:

BIGARRENA: 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko kargu publikoen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea.

Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

LAUGARREN PUNTUA. LANDA BIDE PUBLIKOEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.-
2020ko uztailaren 29an Udal honek landa bide publikoen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantza onartu zuen. Bertan, atoidun kamioiei galerazten zitzairen landa publikoak erabiltzea.

Urte hauetan hainbat eskaera egon dira debeku hori kentzeko eskatuz. Gaia aztertu ondoren, eta inguruetakoa udaletako ordenantzak ikusita, debekua altxatzea proposatzen da. Izan ere, ez dago ziurtatuta kamioi horiek bideak bereziki hondatzen dutenik; ardatz gehiago izaterakoan zoruaren gaineko presioa txikitu egiten da.

2024ko urtarrilaren 19tik otsailaren 20ra bitartean kontsulta publikoa bideratu da eta udal honetan ez da inongo proposamenik egin honen inguruan



MENDAROKO
UDALA

Hau guztiagatik, Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

LEHENENGOA. Landa bide publikoen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantzaren 3. Artikulua aldatzea eta atoidun kamioiak debekua kentzea.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, behin betiko erabaki hori eta LANDA BIDE PUBLIKOEN ERABILERA BEREZIA arautuko duen udal Ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan. Ordenantza hau GAO-n osorik argitaratzea

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.”

BOSTGARREN PUNTUA. BATZORDE INFORMATIBOEN ANTOLAKUNTZA ALDAKETARAKO PROPOSAMENA.

Udal antolaketa berria proposatu da

Hori dela eta, Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

LEHENENGOA: Batzorde informatibo bakarria osatuko da eta bertan landuko dira Herritartasuneko, lurraldeko eta antolakuntzako gaiak.

BIGARRENA: Udal idazkaria arituko da bertan idazkari lanak egiten eta behar izanez gero, teknikariak azalduko dira.



MENDAROKO
UDALA

HIRUGARRENA: Batzordeak irekiak izango dira zinegotzi guztientzat eta talde politikoek daukaten ordezkariak kontuan izango da bozkatzerako garaian.

SEIGARREN PUNTUA. UDALBILTZAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENAK.

Mendaro Udalbiltzan onartua izan eta gero, honako ordezkariak izendatzen dira Udala ordezkatzeko:

Titularra: Enez Ezenarro
Ordezkoa: Olatz Bizkarguenaga

ZAZPIGARREN PUNTUA. MARTXOAK 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduzko-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Mendaroko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.



MENDAROKO
UDALA

- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa-**guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea-ikuspegi interseksionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alargunentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoa** ezagutaraztea.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- **BERDINSAREA** sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerrriak emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea**.

ZORTZIGARREN PUNTUA.- MENDAROKO UDALAK “BERDINBIDEAN GIPUZKOA PROGRAMAN” PARTE HARTZEKO ESKAERA.-

Berdinbidean Gipuzkoa programa 2010. urtean sortu zen lurraldeko 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan emakume eta gizonen berdintasun politikak bultzatu asmoz.

Herri bakoitzaren errealitatera egokitzen diren berdintasunerako planifikazioak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko aukera eskaintzen du. Planifikazioen lanketarako ondorengo ekintzak burutzen dira:

- Mintegi kolektiboak udal ezberdinetako ordezkari politiko eta teknikoekin.
- Udal bakoitzarekin banakako lan saioak behar espezifikoiei erantzuteko.
- Udal teknikari zein politikariei bideratutako formazioak.
- Herrietan ekimen zehatzak gauzatzeko baliabideak.



MENDAROKO
UDALA

- Banakako etengabeko aholkularitza on line eta telefonoz.

Parte hartzeko baldintzak honakoak dira:

1. Udaleko arduradun teknikoa eta politikoa izendatzea eta interlokuzioa maila bietan gauzatzeko konpromisoa hartzea.
2. Antolatuko diren banakako lan saio, formakuntza saio eta mintegi kolektiboetan parte hartzea ziurtatzea.
3. Urteko aurrekontuan berdintasun politikei zuzendutako gutxieneko kopuru bat bideratuko dela ziurtatzea.

Hau guztiagatik, Udalbatzak, ahobatez,

LEHENENGOA: Mendaroko udala Berdinbidean Programan parte hartzeko eskaera egitea eta programa bideratzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua arabera, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 6/2024 zbkik 34/2024 zbkira.

6/2024 zkia: UKATZEA Zelaikua plazako 6. zenbakiko beheko solairuan (eskuina) dagoen lokalaren erabilera etxebizitzara aldatzeko emakida, 2023.012.22ko txosten teknikoan adierazitako arrazoiengatik

7/2024 zkia: Lehenengo aldiz baimentzea eta urte batez luzatzea, material elektrikoaren hornidura kontratua BERDIN, S.L.enpresari (Esp.20011)

8/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen, L.B.JM.. jaunari

9/2024 zkia: Hilerrietako tasen likidazioa, 3 zerbitzu: 1656 €.

10/2024 zkia: Mendaroko Garagartza kaleko 36an dagoen eraikinaren estalkia birgaitzeko obra-lizentzia.

11/2024 zkia: Laugarren luzapena. Eskualdeko ospitale inguruan zuntz optikoa berria jartzeko obra lizentzia.

12/2024 zkia: Fakturen 18.erlazioa: 79.748,16 €.

13/2024 zkia: Alkortamendiko bidean, Giraunea ingurutik Mendaroko herriguneraino landa-bide publikoa erabiltzeko baimena (1. poligonoko 24 partzelan eta 2. Poligonoko 9.partzelan).

14/2024 zkia: Kalteen erreklamazioa, Kilimon etorbideko 5. zenbakiko oinezkoentzako pasabidearen ondoko aparkalekuan aparkatzera zihoala ibilgailuaren gurpiletako bat zulatzeagatik.

15/2024 zkia: Ofiziozko bajak udal erroldan

16/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen, A.A.A.andreari.

17/2024 ZKIA: Gaia: 2023ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren itzulketa proportzionala, behin betiko bajagatik.



MENDAROKO
UDALA

- 18/2024 zkia:** 9461JXG matrikuladun ibilgailuaren T.M.I.U.Z. salbuespena
- 19/2024 zkia:** 9505-BSC matrikuladun ibilgailuaren 2023ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren itzulketa proportzionala, behin betiko bajagatik baliogabetzea.
- 20/2024 zkia:** Familia ugariagatik 2024ko TMIZren hobaria
- 21/2024 zkia:** TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ERROLDA-2024
- 22/2024 zkia:** Fakturen 19.erlazioa: 37 faktura, 137.177,91 €.
- 23/2024 zkia:** Trinitate kaleko 2 zenbakiko lokalaren ondoko lursailean hercules-panela jartzeko obra baimena ukatzen.
- 24/2024 zkia:** Obra lizentzia ukatzen, Atea ordezte, fatxadak keak ateratzeko instalazioa, zatiketak eta lurzuaren nibelazioa, Trinidad, 2 behean.
- 25/2024 zkia:** Aurreko ekitaldietako tasen eta zergen ordainagiriaren bajak.
- 26/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzua onartzen, E.C.ML. andreari.
- 27/2024 zkia:** Zabor bilketaren tasaren errolda. 2024ko 1. SEIHILEA.
- 28/2024 zkia:** Irisgarritasun plana egiteko dirulaguntza onartzea
- 29/2024 zkia:** Fakturen 2024ko 1.erlazioa: 73 faktura, 94.120,88 €.
- 30/2024 zkia:** Ofiziozko baja udal erroldan
- 31/2024 zkia:** 2024 rako Lan eskaintza publikoa
- 32/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzua onartzen, P.L.I. andreari.
- 33/2024 zkia:** INELCOM enpresari 3.806,86 €ko abalaren itzulketa
- 34/2024 zkia:** Aprobar el Plan de despliegue de fibra óptica para el municipio de Mendaro presentado por DIGI SPAIN TELECOM, SLU.

HAMARGARREN PUNTUA. URGENTZIAZKO GAIA .- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak bere 91. Artikuluan dioenaren arabera, gai-zerrendako gaien azterketa amaitu ondoren, eta galdera-eskeen txandara igaro aurretik, lehendakariak premiazko arrazoiengatik, deialdiarekin batera zetorren gai-zerrendan sartzeko eskaera egiten du.gai honakoa da: PALESTINAKO HERRIAREN GENOZIDIOAREN AURKAKO MOZIOA

Osoko Bilkurak ahobatez onartzen du gaia saioan sartzea.

Ondoren, Udalbatzak ahobatez hurrengo mozioa onartzen du:

PALESTINAKO HERRIAREN GENOZIDIOAREN AURKAKO MOZIOA



MENDAROKO UDALA

Palestinarrak beren lurraldetik kanporatu eta Israel legez kanpo okupatzen hasi zenetik 75 urte pasa direnean, azken 4 hilabeteotan euren armadak Gazako zatirik handiena suntsitu du eta 28.500 pertsona inguru hil ditu, horietatik gutxienez 17.000 haur, UNICEFen kalkuluen arabera, eta 68.200 zauritu utzi ditu. Gainera, beste 7.000 pertsona daude obra-hondakinen azpian. Etxebizitza-eraikinen erdia baino gehiago suntsitu dira, ospitale, eskola eta azpiegitura gehienez gain. Israelek ezarritako misilek eta setioak herritarrak ur, elektrizitate eta elikagai zerbitzurik gabe mantentzen dituzte ordutik, eta UNRWAK salatu duenez, 2,3 milioi biztanleen artean 2 milioi pertsona beren hirietatik bota dituzte, eta bien bitartean bonbardaketak eta lurreko inbasio militarra jasaten jarraitzen dute. Israelgo estatua palestinar biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso indiskriminatua onartezina eta gaitzesgarria da. Biztanleria zibila, inoiz helburu militarra izan ezin duena, blokeatuta dago munduko aire zabaleko kartzela handiena deitzen duten horretan. Aldi berean, asko kezkatzen gaitu Zisjordanian Israelgo armadak eta kolono juduek eragindako indarkeriak, bereizi gabe tiro eginez eta palestinarren jabetzak suntsituz; azken hori 2024/02/01ean ere aitortu zuen Biden administrazioak. NBEko agentziek hondamendi humanitariotzat jo duten egoera horren aurrean, Mendaroko Udaleko osoko bilkurak:

1. Uste du Israelgo Estatuaren biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso bereizi gabeak eta kolektiboak ez dituela inongo gertarik justifikatzen, ezta Hamasek urriaren 7an populazio zibilaren aurka egindako eraso gordinek, onartezinak eta gaitzesgarriak direnak. Israelen erasoek milaka hildako, Gazako lurraldearen erabateko suntsipena eta biztanleria osoaren nahitaezko desplazamendua eragiten ari dira.
2. Eskatzen dugu su-eten osoa eta mugagabea, Gazako zerrendaren blokeoa etetea, eta herritarrak beren lurraldera itzultzea, bai eta Zisjordaniako herritarren aurkako erasoak amaitzea ere, joan den urriaren 7tik gogortu egin baitira.
3. Israelgo Estatuari exijitzen diogu atxiloteta administratiboaren babespean modu arbitrarioan atxilotutako presoak berehala aska ditzala (kargurik eta epaiketarik gabeko atxiloteta, mugarik gabe berritu daitekeena). 6.000 palestinar inguru atxilotu dituzte prozedura honen bidez, eta horien artean ehunka adingabe daude. Amnestia Internazionalak salatu du hori.
4. 2023ko urriaren 7tik bere esku dituen bahitu guztiak berehala askatzeko exijitzen diogu Hamasi.
5. Nazioarteko legedia betetzea eta Israelgo Estatuak sistematikoki mespretxatu dituen NBEren ebazpenak betetzea eskatzen du.



MENDAROKO
UDALA

6. Laguntza humanitaria etengabe eta mugarik gabe sartzea eskatzen dugu, herritarrei ura, elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratzeko aukera berrezarritz.
7. Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen diogu onar dezala Palestinako Estatua; gaur egun, 139 herrialdek egin dute.
8. Eskatzen diegu Espainiako Estatuko Gobernuari eta Europar Batasunari Hegoafrikak GENOZIDIOAGATIK Nazioarteko Justizia Gortean jarritako demandarekin bat egin dezatela, eta Ukraina inbaditu ondoren Errusiaren aurka ezarritako zigorren antzekoak ezar ditzatela eta Israelekin harreman diplomatikoak, komertzialak eta militarrik eten ditzatela, nazioarteko legeria, NBE onartutako ebazpenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzen dituzten arte. Nazioarteko Komunitateak ezin du beste aldera begiratu GENOZIDIO bat gertatzen ari den bitartean.
9. Palestinako bandera udaletxeko balkoian jartzea erabaki du, Gazako zerrendako herritarrak jasaten ari diren erasoek irauten duten bitartean.

ERREGU ETA GALDERAK.-

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:35-etan bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

